

EDITH STEIN

1942.8.9an, Auschwitzko inperu gorri-baltzean, gaskamara ta labetan kiskalduta jausten da Edith Stein. «Goazen gure erriaren destinoa leporatuz» inotsan bere aizta Rosari. Orrela eskeintzen dau bere paregabeko bizitza ederra. Andra filosofu famatu au, maiatzaren batean, altaretara jaso izan dogu. Juan Pablo IIak, oraintsu Alemanian zear egindako pastoral ibilialdi onetan, Kolonian ain zuzen, fededunon eredutzat jarri dausku emakume judutar jator au.

Husserl filosofuaren ikasle aurrerakoi onen ibilbide oso interesgarria egiten jaku Karmelen diardugunoi. Euskalerrian ainbat jarraitzaile zintzo baditu emakume onek. Bere urratsetan naitzko murgildurik dabiltz. Berau bezelako emakumerik ez dira dozenezan amairu. Komenigarri deritxagu andra onen bizitza ta pentsamentua zerbait aipatzea. Edithen pentsamentua ta ideiak Lino Akesolok, bere oizko trebetasun ta jakituriaz, aztertzen dauskunez, nik neuk bere bizitzako pausu batzuk besterik esditut esango.

Andra judutarra

Pertsona baten bizitzan familiak badauko ukatu ezifizezko garrantzia. Zelako famili giroa, alako seme-alabak, geienetan beintzat. Edith judutar famili ugaritsu baten, 1891eko urriaren 12an jaioten da, Breslau uriburuan, judutarren Kippur jai bere-

zian, gainera. Amaika nebarrebagandik bera izango da gazteena. Urte bi bete baino leenago, zinkada ondoezaz jota, ilgo jako aita.

Seme-alaben eziketa ta familiko egur-enpresa, amaren eskuetan geratzen dira. Etxebeteko andrea dogu Augusta, Edithen ama. «Etxeko samurtasun goxoa ta berotasun guztia amagandik etorkigun» idatziko dau «Aus den Leben einer jüdischen Familie» liburu ezagunean. Jaungoikuagandik etorkion gure amari bere biotz zabaltasuna. Talmudeko legeak ondo beteten alegintzen zan. Oso fede aundiko emakumea. Goizetik gaberaino jo ta ke lanean ikusten genduan ta geu be geure kapritxoetan naiko apalak izaten giñan». Amaren ta alaba txikiaren maitagarritzko lokarriak eriotzaraino iraungo dabe. Nebarreben artean, Erna, bera baino urte bi zartxoagoa, izango dau maiteena!



Stein familia (1895), Edith txikiena

Unibertsitateko ikasle ta fedebako

Oso bizkorra dogu eskolan. Ume-umetatik ikasteko gogo bizia agertzen dau. Amairu-amabost urte bitartean krisis aundi baten sartuta daukagu. Alde batetik ikusten ditu bere nebarreba nagusiak etxetik kanpo ez dirala sinismendun ageri. Berak be 13 urtekin itziko dautso erreseteari. Beste aldetik, bere burujabeta-suna lortu nairik darabilgu. Batxiler ikasketak asteko egoala, es-tudioak bertan bera laga ta or doa Hanburgo uriburura. Ta an bere arreba nagusiaren etxean ixte urte bete igaroko dau. Barri-ro be etxeratzea erabakiten dau ta amaren besoak zabalik ditu etxean. Ta orrela, ostera be, ikasten arituko da, batxiler ikaske-tak, ain zuzen.

Ogei urtekin sartuko da Unibertsitatean. Garai artan, an-drazko gitxi joaten ziran Unibertsitatera ikasten. Esaterako, 1911-1912 kurtsoan, 44.632 ikasle ebizan Alemani guztian ta eurotatik 1.132 emakumezko bakarrik. «Askorentzat, emaku-meak Unibertsitatean ikustea, Unibertsitatea lurperatzea zala» ifioen. Esames oneek kontuan artu barik, Edith ta Erna Uniber-tsitateko ikasketak egiten jarraitzen dabe. Edithek irakasle izate-ko asmotan-edo aleman filologia, historia ta psikologia aukeratzen ditu. Egarriz ta kezkatuta darabilgu egia billatzen.

Richard Höningswaldaren pentsamentuaz liluraturik batetik ta Willian Stern sikologiaren eraginez bestetik, amairu urtekin asitako krisisaldi luzearen amaia, fedea galtzea izango da. Oso osorik bere burua fedebakotzat dauko. Zorionez ez da izango au krisisaldi onen azken etapa «Arima bako» psikologiak ez dau bere biotz barrena beteko. Atsegiñago jako Husserlen «Logische Untersuchungen» liburuan agertzen dan filosofia.

Husserlen eskolako filosofua

Breslauko Unibertsitatea alde batera itzi ta Gotingara doa, Edmund Husserlen fenomenologoaren irakaspentak sakontzeko. An ezagutuko ditu Hans Theodor Conrad, Dietrich von Hil-debrand, Alexander Koyre, Adolf Reinach, Eduvigis Conrad-



Edith lau urtekin

ibillaldi luzeak, 40 kilometrotik gora. Aste barruan jo ta ke ikasten. Bera ta Rosa Guttman bi gelako pisutxo baten bizi dira. Gozaldut a faldut etxetxoan ta bazkaldut barazkizale restaurante baten. Maite dau Unibertsitateko bizitza. Bertako arazoetan azurretaraino sartuta dabil «izatearen azalean geratu barik, mamiraiño eldu nairik».

Unibertsitate onetan, beste filosofu aundi baten eragiña be sentiduko dau. Munichetik dator Max Scheler kurtso berezi batzuk zuzentzen ta Edithek ez dau utsik egingo kurtso orretan. Max Scheleri esker, erlejiñoaren aurkako ainbat «prejuizio» kili-kolokan ari dira biotz barruan. «Erlejiñoaren bidez, gizona gizon

Martius. Guztien gaiñetik, Husserl izango da bere «maisua». Filosofia ikasteko giro ederra aurkitzen dau. Gau ta egun etxean ta kalean, maaian ta ikasgeletan fenomenologiari buruz arituko da.

Gotingan igaroko ditut Unibertsitateko urterik pozgarrienak. Bertan ikasiko dau tenisen jolasten. Ordurako naiko ederto ekian dantzan. Umetatik etorkion musika zaletasuna. Asteburuan inguruetako mendi ta zelaietara doa bere lagunekin. Sarritan

izatera eltzen dala» entzutean, itzelezko eragina sentitzen dau bere bizitzako planteamentutan.

Bitartean lenengo gerra mundiala sortzen da ta or doa «Kurutz Gorrian» gaixo ta zaurituak zaintzen. «Zergaitik zatoz?» itanduko dautso mediku batek ta ona Edithen erantzuna: «Nere ikaskideak gerran ta ez dot nai fabore berezirik». Ezan gure neskeka azalezko feminista. «Tapferkeitz domina» irabaziko dau gerran. Urte bat serbitzuan igaro ondoren, Unibertsitatera barrio be, tesis doktora amaizera Husserlen babespean. Baiña orain Friburgora doa. An aurkitzen da bere «maisua». 1916.8.3an, «summa cum laude» notagaz defendituko dau bere tesis doktora. Jai polit bat eratuko dabe Husserlen etxean ta sari gisa ereñotz, lili ta untz-orriz koroituko dabe doktoresaria barria. Urte aretan, Alemani guztian, bera izango da tesis doktora egindako emakume bakarra. Ta berealaxe aukeratuko dau Husserlek asistente bezala. Gustora arituko da «maisua» ondoan filosofi gaiak sakontzen. Juxtu-juxtu bizitzako aina irabazten dau ta pozik. Eun bat marko illero!

Kristau fededun

Ebretear odola daroa bere zainetan. Amairu urteraino judutar sinismenean murgildurik bizi da. Unibertsitatean oso osorik galtzen dau fedea ta atea bezela agertuko da edonon.

Zelan irixten da kristau federa? Zelan aurkitzen dau Kristoren Jaungoikoa? Billaketa ori ezan izan egun batetik besterakoa. Berak diñozkunez «Kristo pertsonen bidez» aurkitzen dau. Lenengo ta bein, Max Scheler filosofu katolikuaren eragiña aipatzekoa da. Onen itz-etorria, onen patxada, onen ideiak zirkin galanta egingo dautso. Ortik sortuko jako Kierkegaard irakurtzeko zaletasuna, naizta bestelako eraginik izan ez.

Askotaz be sakonagoa izango da Adolph Reinachen ta emaztearen influentzia. Senar-emazteok judutarrak ziran baina kristau erlejiñora biurtuak. «Adolph bezelako biotz garbiko gizonik ez neban neure bizitzan ezagutu. Berarengan beste mundu barri bat ikusten neban» idatziko dau Edith Steinek. Adolph Reinach gerran jausten da ta bere emaztearen fedez txundituta

geratzen da: «Orduntxe ikusi neban agirian fedearen indarra mundu onetako sufrimentuak gainditzeko» Adolphen alargunaren baimenaz, bere lagun kunitunaren paperak atontzen diardu, ta ainbat pentsamentu eder aurkituko ditu paperetan Kristori buruz. Ixe igerri barik beste mundu barri baten atarian aurkitzen da...

Frankforteko uri zaarra ikusten dabilela, Katredalean sartzen da ta an ikusitakoaz arrituta geratuko da Edith Stein. «Katedralean sartu giñan -iñosku berak- ta an gengoza, errespetu aundiz, emakume bat sartu zan bere eros-otzaratxoaz ta belaunikatuta otoitzean ziar- duan. Niretzako orixe izan zan ezperientzi guztiz barria... Ez Sinagogetan, ez eleiz protestanteetan ez neban iñoiz olakorik ikusi... Pertsona bat bakar bakarrik, bere eguneroko zeregiñetan, uts utsik egoan eleiz baten belaunikatuta, bakar bakarrik otoitzean. Iñoiz neure begi aurrean ez neban olako gauzarik ikusi...»



Edith (eskumean) Erna bere aitzarekin

Beste bein, udazkena igaroteko Fedbergeko baserri baten ostatur daukagu. Baserri orretako nagusia, egunero, goizean goiz, etxeko seme-alaba ta morroiekin batzen zan otoitzean. Ta gero lanera joan orduko, eskua emoten eutsen etxeko guztiei. Jende xee oneengan Jaungoikoaren presentzia somatzen ari da...

Kristau biderako azken bultzada, Santa Teresaren bizitza irakurrira artuko dau. 1921. udazkena pasetan, Eduvigis Conrad-Martiusen basetxean aurkitzen da. Egun baten, bakarrik dago ta denporea pasetako edo liburutegian egoan Santa Teresaren bi-

zitzira irakurtzen asi da. Ta ez da geratuko dan dana irakurri arte ta azkenean pozari eutsi eziñik: «Ona emen egia» izango da bere eureka deadarra.

«Endliches und ewiges Sein» liburu famatuan auxe idatziko dau askotaz geroago: «Filosofiak emoten ez dauskuna, fedeak emoten dausku: Jaungoiko pertsonala, ain maite gaitun Jaingoikoa». Ta beste au be esango dautso bere lagun bateri: «Egia ez da Unibertsitatean aurkitzen, Eleizan baino». Santa Teresa izan da, azken baten, Kristogana urreratu dauan bidea. Ain maite izango dau Avilako Teresa, bere liburu guztiak goitik beeraino irakurriko ditu. Ta, askotan, otoiz gisan, ozenkil Teresaren bizitza irakurrita, berealaxe kristau dotriña ta meza liburu bat erosiko ditu. Ez bakarrik erosi, baita irakurri, ausnartu ta ikasi be. Ta 1922. Urte Barri egunean, gabon zar guztia otoitzean jardun ondoren, batcoa, ta eukaristia artuko ditu Bergzaberneko parrokian. Teresia Hedwige izena artuko dau bateoan. Conrad-Martius izango dau amabixi. Ogeita amaika urte ditu Edith Steinek.



Augusta Stein-Courant, Edith'en ama

Bateatu ondoren, amaren etxera doa Bildur da ia bere amagandik asarre gogorrak entzungo ete dabezan. Emozioz beterik, amaren aurrean belaukatuta auxe diñotso: «Ama, kristau katolikuegin naz» Ta beralaxe ama negarrez asten da. Ezaban Edithek ordura arte inoiz bere ama negarrez ikusi ta bera be amari oratuta negarrez asten da. Ordutik aurrera, Sinagogara joaten lagunduko dautso bere amari, baita Salmoak erresetan be. Bein Sinagogatik etxera etozala, alkaritzketa au sortzen da:


- Sermoi ederra etzun izan dogu, ezta? -amak.
- Bai! -alabeak.
- Judeuen artean be, izan leike fededun zintzoa? -amak.
- Bai, beste biderik ezagutzen ez bada! -alabeak.
- Zelan ezagutu leike beste bide ori? Nik neuk ez dot neure bizitzan ezer esan Jesukristoren aurka. Baliteke gizon bikain bat izatea, baina Jaungoikua Kristogan gizon egin dala...!!! -amak.

Irakasle ta izlari famatua

1922-1933 bitarteko urteetan irakasle ta izlari bezela jardungo dau. Irakasle Espiran ta Münsterren. Espiran zortzi urte ta Münsterren ixe bi. Espirako urteak monjen kolegio baten. Urte orrek ondo baino obeto aprobetxatuko ditu kristau fedea sakondu ta bizitzen. Orretarako itzelezko laguntza izango dau bai Schwind kalonjearengandik ta baita E. Przywara filosofu ta teologu aundierengandik ta Rafael Walzer, Beuroneko Abataren-gandik be. Erich Przywararen eraginez, Akinotarraren «Quaestiones disputatae» ta Henry Newman kardinalaren kartak itzuliko ditu. Zeregin bi oneek mesede galanta egiten deutso Edithen biotzari. 1928raino, Eleizaren jairik aundienak Beurongo monastegian ospatzen ditu. Bertako Abatagaz artu emonaldi sakanak eukiko ditu. «Ez dot neure bizitzan -idatziko dau abatak-beste pertsona bat ezagutu Edith Stein beste kualitate batera eukanik. Laua lauekin ta jakintsua jakintsuekin».


Izlari bezala, benetan arrakasta aundia izango dau Alemanian, Suizan ta Austrian zear. Bere itzaldiak oso sonatuak izango

dira. Saltzburgon ta Vienan egindakoak ez dabe mugarik eza-
gutzen. Bertako gai nagusiak, emakumeen bokazio ta eskubi-
deak izango dira. Itzaldi orreek «Frauenbildung und Frauenberu-
fe», ta «Das Ethos der Frauenberufe» izenagaz argiratuak izango
dira. Orain 56 urte ain pentsamentu eder ta sakonak entzun lei-
kezanik be... Gaurko feministak badauke nora begiratu ta zeini
erregutu...



*Karmeldarren komentua Köln-Lindenthal'en. Emen sartu zan monja Edith 1933.ean.
Egazkiñak zuzitu eben 1944.ean.*

Garai artako karta baten argi ikusten da zelan joian fedea sa-
kontzen: «Erlejiñoa ez da asuntu pribatu bat edo otoitz aldi bat-
zuk egunean edo aste barruan zear egitea. Fedea bizitza guztiaren
oiñarria izan bear dau. Ta ez kristau batzuentzako baita kristau
guztien iturburu ta sustrai be. Kristogana biurtu orduko ta biur-
tuta gero be, uste neban, kristau izatea munduari uko egitea zala
ta Jaungoiko gauzetan gau ta egun igarotea. Baina orain



*Beneditar abata-nausia, Rafael Walzer (1888-1966),
Edith'en autorle ta zuzendari).*

konturatzen naz,
zenbat ta geiago
Jaungoikuagan bizi,
ainbat ta geiago
mundu onetako
arazoetan murgil-
duta bizi bear dala...»

Lekaime karmel- darra

Kristau fedea
lortu ondoren sor-
tuko jakon bereala-
xe monja izateko
bokazioa. Baina
amabi urte igaro
bear izan ebazan
oztopoak gainditze-
ko: «Amabi urteot-
tan, karmeldar izat-
ea izan da nire
asmo ta gogo guz-
tia. Bein Santa Te-
resaren bizitza ira-

kurri nebanetik, asmo ori ez dot inoiz be zalantzan ipini. Pazientzi aundiz itxaron bearra izan dot. Egonaldi latza ta luzea baina, azkenean, eragozpenak garaituko ditudala-ta nago» idatziko dau Edith Steinek.

Zeintzuk dira eragozpen orreek? Eragozpen guztiak bere barneko gidariengandik datoz, batez be Schwind kalonjearen-gandik. Onentzako serbitzu aundiagoa egingo dau Edithen munduan, konbentuan baino. Ta ez dautso inoiz be itziko klau-surako monja izaten. Eriotzak eroan ez baleu Schwind, ez daki-gu Edith karmeldar izango zanik... Beurongo abata eritxi bere-koa zan baina Schwind baino bigunagoa. Beste orrenbeste Erich Przywara. Bi oneek, azkenean, gauzak aldatzen joiazala ikusiaz,

askatasuna osoa emon eutsen karmeldar izateko.

Edithek karmeldar izateko azken erabakia 1933.4.30ean artu eban. Koloniako karmeldar lekaimeen eleizatxoan «Ordu Santu» otoitzean ziarduan. Burruka bizian argi billa. Amairu ordu belaunikatuta daroaz otoitzean ta auxe da bere eskaria: «Jauna, ez dot urtengo eleizatik, argi pizkat lortu arte» Biotz barnean argi ori sentitzen asi da. Iru lau astetan gertatzen ditu konbentuan sartzeko gauzak. Agurtzen ditu bere ama zaarra, 84 urte beteta daukoz, ta beste etxeko danak. Ama negarrez ta nebarrebak arrituta ulertu ezinik. «Karmelora daroan bidea kurutzeta da». Konbentuko monjak ez dakie Edithen bizitzako historia. Berrogeita bi urte ditu ta ez jako ain erresa egingo komunitateko bizitza. «Erresago da Kristokin kurutzetan iltea, berarekin ume biurtzea baino». Ordenan Kurutzeko Teresa Bededikta izena artuko dau.




*Teresa Benedicta a Cruce (Edith),
1938.ean, Köln'dik urten bearra euki
ebanean*

Edithek ez ditu kanpokoekin artuemonik apurtzen. 350 karta daukaguz bereak ta 200 konbentutik idatzitakoak doguz. Astero idazten dautso amari kartatxo bat, baina ez dau egundo amagandik erantzunik izango. Bein bakarrik, Rosaren karta baten frasetxo bat bialduko dautso. Ezertxo be ez geiagorik. Iñoiz be ez da joango konbentura bere alaba txikerrena ta maiteena ikustera. 1936.9.14an, 87 urtekin, ilgo jako ama: «Orain betiko bizitzan dagonez, gauza guztiak ulertuko ditu» idatziko dau Edithek.

Konbentutik sarritan pasauko dira Peter Wust, Erich Przywara, Rafael Walzer, G. von Le Fort ta abar. Liburuak

ta artikulua idazten sendo diardu. Orra or idatz-lan batzuk: Santa Teresaren ta Santa Margaritaren bizitza, Tomas Akinotarraren itzulpena amaitu ta batez be «Endliches und ewiges Sein» liburu sonatua. lan au ezin izan zan plazaratu sozialnazitzen bildurrez. 1950ean ikusi eban lendabiziko argia.

Konbentuan egoala beste poz aundi bat be euki eban: bere aizta Rosa kristau federa biurtzea. Edithek personalki preparau eban Rosa bateoko Sakramentua artzeko. Gabon gabean, karmeldarren eleizan, Rosa be kristau biurtzen da. Baliteke aizta bien arteko poztasunik aundienetarikoa auxe izatea.




Auschwitz'ko barraka bat. Zigor-zelai onetan Edith trankil agertu zan eriotzaren aurrean. Lager'en bertanbera itxutako umetxoakaz arduraturik.

Zergaitik Edith Steinek aukeratzen dau Karmeldarren Ordena monja izateko? Santa Teresaren eraginez, dudarik gabe. Egi au ezin leikio inortxok ukatu. Baita Lisieuxko Teresaren eragina be ageri da «Bera bezela maitasunez lertuta nai neuke bizi». Ortik gainera badago beste arrazoi bat be. Ondo baino obeto ekian

Edithek Karmeldarren Ordena, Palestinako lurraldeetan sortua zala ta Israelgo profetarik aundienetan oiñarritua. A zelako poza sentitzen eban, Kristo bera be, bere arrazakoa zala sinistean!

Auschwitzko martiria

Nazitzak euren bildurgarrizko erpe baltzak erakusten asi dira. 1938.11.9an judutarren etxe ta sinagoga ta dendetan izugarriko triskantzak egingo dabez. «Kristalnacht» izenagaz bateatu-



Auschwitz'ko alanbradak

ta geratuko da zorigaiztoko gau ori. Ta asko ta asko atzerrira igeska doaz. Euroatik ainbat senitarteko. Arno bere anaiak be Ameriketara igesiko dau. Konbentuko nagusiak Belenera bialtzea crabaki dabe, baina judutarrak ezin dabe Palestinara joateko permisorik lortu. Ta orduan Holandako Echt konbentura daroe Edith, gabon zar gabean, bere adiskide mediku baten bitartez. Bere aizta Rosa be ara joango da urte bete beranduago konbentuko atezain bezala.



Juan Paulo IIgarrena, Edith'en idatzi ta dokumentuen aurrean

Gauzak egunetik egunera txartuago doaz. Holanda be 1940an Hitleren menepan jausiko da. Edith Steinek bere azken testamentuan auxe esango dau: «Oraindixetik pozik nago Jaungoikoak nai dauan eriotza onartzeko». 1941 urtean zear «Kreuzwissenschaft» liburua idatziko dau: «Jaungoikua Kurutzecan be Jaungoikoa da». Liburu onetan bere erriaren zoria be aurrean dauko. Beste aldetik E. Przywararen eskua be ikusten da.

Ainbat ta ainbat judutarren destinoa Auschwitz, edo Buchenwald, edo Dachau, edo Mauthausan izango dira. Holandan be aldi txarrean aurkitzen dira baina erasoaldi gogorrena ez da asiko 1942 uztailara arte. Holandako gotzaiek karta ausarti bat idazten dabe nazizten aurka ta karta ori Holandako eleiz pulpitoetan irakurtzen da. Gestaporen ta SS. erasoaldia berealaxe sortzen da. Abuztuaren 2an Holandako juduarrazako lekaide ta lekaime guztiak giltzapetuak izango dira. Euren artean Edith ta Rosa Stein. Ta beste 1200 judegu katolikuekin batera Westerborkeko kanpoan batuko dabez. Lekaide ta lekaimeak otoitzerako alkartzen dira. Euren pena mezarik ez eukitea, Gure Jauna ez artzea. Andik Poloniara, Auschwitsera, ain zuzen. Zer esanik ez, Edith ta Rosa tartean.

Ixe ezertxo ez dakigu Edith Steinen azken egunei buruz. Animaliek baino txartuago trenez daroez Auschwitseraino. Bertoko gas-kamaretan iru millotik gora aurkituko dabe eriotza. Ta euren artean, abuztuaren 9an, emakume filosofu-pentsalari sakon eta santa aundi bat: Edith Stein. «Bere oroipen bizia eta irudia, ikasbide etikoa izateaz gainera, iturri bikain be bada, Jaungoikuari buruz ezaguera aberatsa eta gozoa euki daigun».

A. Olea